Proiektuaren helburua da iraunkortasun energetikoari buruzko araudiaren oinarriak ezartzea EAeko administrazio publikoetan, energiaren politikak duen orientazio orokorra betez; administrazio publikoek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharraK ezarri behar dira, honako neurri hauek sustatzen bideratuta batez ere: energia aurreztea eta hura eraginkorragoa izatea, eta energia berriztagarriak bultzatzea eta ezartzea.

c.- Beste helburu batzuk:

- EAEko administrazio publikoa arduratsua, eredugarria eta erreferentea izatea klima aldaketari dagokionez.
- Ekintza eredugarria bultzatzea EAEko administrazio publiko guztietatik, eta EAEko gizarteko eragile guztiak parte har dezaten lortzea.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa, hari lotuta dauden edo haren menpekoak diren entitateak barne.
- Lurralte historikoetako administrazioa, hari lotuta dauden edo haren menpekoak diren entitateak barne.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako administrazioa, hari lotuta dauden edo haren menpekoak diren entitateak barne.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, hari lotuta dauden edo haren menpekoak diren entitateak barne.

e.- Lege-projektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko lehenengo lauhilekoan.

9.- Mugikortasun jasangarriari buruzko Legea.

a.- Izena: MUGIKORTASUN JASANGARRIARI BURUZKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Legez koordinatzea eta agintea mugikortasunari buruzko politika, zeina modu desberdinek osatzen duten sistema den, leku-aldatze eta iragarritasun beharrizanei erantzuteko.

Halaber, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legearen aldaketa jasoko da.

c.- Beste helburu batzuk:

- Elementu komun guztiak sartzea tarifen diseinuan eta operadoreen koordinazioan, Zerbitzua ematen dela bermatzea,
- Ekonomikoaren eta teknologiaren lankidetza-mekanismoak formulatzea.
- Ingurumen-garraiobide jasangarrienak bultzatzea, baita klima-aldaketaren aurka borrokatzenten duten energia garbiak erabiltzea.



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabilita, dokumentu hauegiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://euskatel.eus/lokatzarria>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electrónica <http://euskatel.eus/localizador>



d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

Garraio publikoa eta haren erabiltzaileak (errepubidea, trenbidea, portuak eta aireportuak), salgaiak eta logistika-plataformak, berrikuntza, turismoa, ingurumena, nazioarteko harremanak (Europako konexioak) eta administrazioen arteko elkarlana.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko hirugarren lauhilekoan.

10.- Apirilaren 8ko Landa Garapenerako 10/1998 Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: APIRILAREN 8KO LANDA GARAPENERAKO 10/1998 LEGEA ALDATZEKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Landa-hiria interakzio berrira egokitzea, duela 18 urte onartuta gaur egun indarrean dagoen legean datozen parametroak ez diren beste parametro batzuetan oinarrituta, eta gure landa-inguruaren garapena baldintzatuko duten joera berriei aurre egitea, batasuneko politiken eboluzioa nahiz Europako politika erregionala kontuan hartuta.

Euskadiko ekonomiaren garapena, lurraldeen arteko konexioa, premia energetikoak, berrikuntza soziala, kontsumitzeko joera berriak eta garapen metropolitanoari (hiria-eskualdea) lotuta datorren lurralte-garapenerako eredua izango dira kontuan hartuko diren parametro berriak.

c.- Beste helburu batzuk:

Erakundeen arteko koordinazioa eta kolaborazioa lantzeko sistema berria taxutzea, Euskadiko erakundeen legea aintzat hartuta:

- Organoen egiturak eta jardun-eremuak beste era batera planteatzea: landaberri, landaraba, landabizkaia, landagipuzkoa
- Landa-garapenerako elkarteen planen barruan biltzen diren ekintzetako eskumenak, zerbitzuak parte-hartzea eta kolaborazioa beste era batera definitzea, errekonozitutako instrumentuak izan daitezen, eta Landa Garapenerako Legea betetzeko garantia.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

Legearen asmoa aintzat hartuta, hauek izango dira landa-garapenaren alde jarduten direnen aranean, Landa Garapenerako Legeak eragiten dieten eragile funtsezkoak, garapen arlo guztiak biltzen dituztelako:

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hauegialdia den
aia ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://eusko.eus/localizador>



- Tokiko administrazioa
- Foru Aldundiak
- EUDEL
- Landa-garapenerako elkartea
- Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako organizazio profesionalak
- Sindikatuen organizazioak
- Emakumeen elkartea
- Nekazaritzako elikagaien sektorea
- Turismoaren sektorea
- Industriaren sektorea
- Zerbitzuen sektorea
- Herritarra



e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko lehenengo lauhilekoan.

11.- Euskal Autonomia erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUEN ETA ITSAS GARRAIOAREN LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako jarduera legez arautzea.

Itsas garraioak eta oro har garraio horren abiapuntu izaten diren portuek elkarrekin duten lotura aintzat hartuta, komenigarritzat jotzen da lege-testu berean jasotzea gai horiei dagozkien arau guztiak, horrela gure itsasertzeko portu eta instalazioek sistema bat osa dezaten, itsas garraioaren premiak aseko dituena merkataritzaren, arrantzaren zein aisiaren arloetan.

Nehi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://euskaide.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://euskaide.eus/localizador>

c.- Beste helburu batzuk:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuei, portu-instalazioei eta itsas instalazioei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzea.
- Portuak planifikatu, antolatu, ustiatu, eraiki, handitu, zaharberritu eta mantentzeko araubideak ezartzea, bai eta portuetako zerbitzuak emateko, jasotzeko eta erabiltzeko araubideak ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuetako jabari publikoaren kudeaketa erregulatzea eta hura erabiltzeko araubidea ezartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Portu Administrazioaren egitura eta funtzionamendua





ezartzea.

- Portuetako jabari publikoa erabiltzearen eta portuetako zerbitzuak ematearen ondoriozko araubide ekonomiko-finantzarioa erregulatzea.
- Zehatzeko araubidea ezartzea autonomia-erkidegoko portuetako jabari publikoan, bai eta ikusatzeko eta kontrolatzeko ahalak ere, hain zuzen Euskal Autonomia Erkidegoko Portu Administrazioari dagozkionak.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Portuetako jabariko baimen eta emakida administratiboen titularrak (partikularrak eta enpresak)
- Toki Administrazioa (portua duten udalak).
- Portuetako zerbitzu eta jardueretan diharduten enpresak.
- Itsas garraioan diharduten enpresak.
- Herritar guztiak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2017ko hirugarren lauhilekoan.



4. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

12.-Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL ENPLEGU SISTEMARI BURUZKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Enplegu Sistema arautza eta antolatza, hau da, enplegu-politika aktiboak planifikatu eta garatzeko egitura eta tresnak arautza.

c.- Beste helburu batzuk:

- Euskal Enplegu Sistema osatzen duten eragileak eta haien harremanetarako eredua zehaztea.
- Euskal Enplegu Sistemaren zerbitzu eta onuradunak zehaztea.
- Euskal Enplegu Sistemaren parte-hartze organoak ezartzera, eta haien plangintza-tresnak zehaztea.

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabiliha, dokumentu hau egiaztatzen aila ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electrónica <http://eusko.eus/localizador>



d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- EAEn bizi diren eta lan egiteko lege-gaitasuna duten langabeak edo landunak.
- EAEn kokatutako enpresa eta eragile enplegu-emaileak.
- Enplegu-eremuan esku hartzen duten euskal erakunde publikoak.
- Euskal enpresa-erakundeak.
- Euskal sindikatuak.
- Enplegu-eremuan esku hartzen duten gainerako erakundeak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztean aurreikusten den:

- 2019ko lehenengo lauhilekoan.



13.- Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: GIZARTERATZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Araudia Diru-sarrerak Bermatzeko Errrentaren Batzorde Teknikoak egindako proposamenetara egokitzea, gizarte-babeserako euskal sistemaren finantziazioa sendotzeko eta jasangarritasuna bermatzeko.

Hortaz, zenbait aldaketa egingo dira, betiere diru-sarrerak bermatzeko errrentari dagozkion alderdi guztiak optimizatzeko eta gizarte-kohesioko tresna gisa sendotzeko helburuarekin.

c.- Beste helburu batzuk:

Krisialdiak sortutako pobrezia-egoera berriei erantzutea, garrantzizko alderdi guztiak berraztertuz, babesia hobetzeko eta gizarte-larrialdiko egoeren kronifikazioa saihesteko.

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilgailua erabilta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euskaide.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://euskaide.eus/localizador>

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Egoera zail batean dauden pertsona eta kolektiboak, lanik gabe dauden eta/edo lan-merkatuan sartzeko zaitasunak dituzten pertsonak, diru-sarrera urriak dituzten langileak, pentsiodunak, bestelako pentsioak jasotzen dituztenak eta abar.
- Udaletan eta Foru Aldundietan eragina izan dezake.



e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztean aurreikusten den:

- 2018ko bigarren lauhilekoan.



14.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEKO ETA BABESTEKO 3/2005 LEGEA ALDATZEKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Legea estatuan alor horretan sortu diren honako arau berri hauetara egokitzea: 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa.

c.- Beste helburu batzuk:

3/2005 Legearren edukia eta terminologia 26/2015 Legean eta 8/2015 Lege Organikoan bildutako xedapenetara egokitzea, besteak beste honako gai hauetan: adingabearren interes gorenak, arrisku-egoeraren deklarazioa edo familia-harrera motak. Hori ez ezik, cinarrizko xedapenak garatzeko aukera ere izango da.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko eskumenak dituzten Administrazio Publikoak, eta beste erakunde batzuk: Foru Aldundiak, Eudel, Ararteko eta abar.
- b) Haurrak eta nerabeak zaintzearen eta babestearen alorrean esku hartzen duten Profesionalen Elkargoak: Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa, Euskadiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala, Euskadiko Psikologoen Elkargo Ofiziala eta Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa.
- Haurren sektorean diharduten gizarte-erakundeak -oro har-, tratu txarrak jasan dituzten haurrekin, harreran, adopzioan, eta abar.
- Haurrak eta nerabeak zaintzearen eta babestearen alorrean diharduten irakasle edo adituak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko lehenengo lauhilekoan.



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoan den
ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euska.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electronica <http://euska.eus/localizador>



5. INGURUMEN, LURRALDE PLAGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.

15.- Injurumenaren, Klima aldaketaren eta Natura kontserbatzearen Lege orokorra.

a.- Izena: INGURUMENAREN, KLIMA ALDAKETAREN ETA NATURA KONTSERBATZEAREN LEGE OROKORRA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia jasangarriaren ekimen guztiak sustatuko dituen lege-esparru bilakatzea. Arlo horretan dagoen legeria integratu eta egunereztea, emisioak gutxitzeko helburuak finkatzea eta klima-aldaketaren kontrako borroka sustatzeko arau-neurriak sartzea.

c.- Beste helburu batzuk:

- Ingurumena babesteko arloko gai berriak sartzea, hala nola argi-kutsadura, usain-kutsadura eta kutsadura elektromagnetikoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistemak, espezieak eta paisaia kontserbatu, babestu eta hobetzea.
- Baliabideak eta hondakinak kudeatzea.
- Esku-hartze administratiboaren prozedura guztiak antolatzea, simplifikazio administratiboaren irizpideei jarraikiz, eta proiektuak eta jarduerak abian jartzea erraztuta, betiere ingurumenaren babesak kaltetu gabe.
- Dagokien prozedura bete behar duten plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa.
- Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko aukera. Gai hori bereziki garrantzitsua da, gure herritarren kezka kontuan hartuz gero.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren baterako erantzukizuna bultzatzea ingurumena hobetzeko eremuan.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Administrazioak.
- Enpresak.
- Unibertsitateak.
- Erakunde Publikoak
- Ikastetxe eta institutuak
- Ikerketa eta garapeneko zentroak.
- Autonomia-erkidegoak parte hartzen duen nazioarteko erakundeak
- Ingurumenarekin lotutako erakundeak eta talde soziala.
- Sindikatuak eta alderdi politikoak
- Oro har, herritarrak, arauaren hartzale gisa.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hau segiakoa den ala ez jakin litake ergitza elektroniko honetan: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el localizador J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electrónica <http://eusko.eus/localizador>





- 2019ko lehenengo lauhilekoan.

6. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

16.- Ekarpeneen Legea 2017-2021.

a.- Izena: BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIAREN LEGEA, 2017-2021 URTEETAKO ALDIARI APLIKATZEKO.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko finantza-harremanen erreferentzia-esparra eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 41.2 artikuluko e) idatz-zatiko baldintzak betez.

c.- Beste helburu batzuk:

Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren ondorio diren baliabideak 2017-2021 bosturtekorako EAeko erakunde publikoen artean banatzeko metodologia zehaztea. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakita, 27/1983 Lege, azaroaren 25eko, autonomia-elkarreko osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzkoan, 22. artikuluan, xedatutakoaren arabera.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Foru-aldundiak.
- Udalak.
- Herritarrok, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztear aurreikusten den:

- 2018ko lehenengo lauhilekoan.



Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabiliz, dokumentu hauegiazkoa den
ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electrónica <http://eusko.eus/localizador>



17.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki Kutxei eta Banku-fundazioei buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREZKI KUTXEI ETA BANKU-FUNDAZIOEI BURUZKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki kutxei buruzko egungo araudia arlo honetan Estatuan dagoen oinarrizko arautegira egokitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko banku fundazioen araubide juridikoa erregulatzea, Estatuan arlo honetan dagoen oinarrizko araudiaren arabera.



c.- Beste helburu batzuk:

- Aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen finantza-jarduera ikusatzeko araubidea egokitzea.
- Espainiako finantza-sektorearen berregituraketak haren guztizko aldaketa ekarri du eta, praktikan, aurrezki-kutxak gaur egun arte ulertu diren bezala desagertzea eragingo du. Egoera horrek ezinbesteko du gure ordenamendu juridikoa testuinguru berrira egokitzea.
- Era berean, banku-fundazio izeneko erakundeen babes EAeko Fundazioei buruzko Legearren barruan bateragarri egitea eskatuko du.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Banku-fundazioak.
- Foru-aldundiak.
- Udal-administrazioa.
- Interes kolektiboak babesten dituzten erakundeak, batez ere interes zientifikoak, sozialak, ongitzazkoak, ekonomikoak edota profesionalak babesten dituztenak.
- Langileen ordezkari diren sindikatu-elkarrean.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko lehenengo lauhilekoan.

Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hauegiazko den
ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euskaide.eus/lokalizatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electronica <http://euskaide.eus/localizador>

18.- Laguntzen araubidea arautzen duen Legea.



a.- Izena: LAGUNTZEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

- Laguntzen eta dirulaguntzen araubide orokorra Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gai moduan berariaz erregulatzea.

- Administrazioaren dirulaguntza-jarduera berrantolatzea, kontuan hartuta indarreko araudiaren aplikazioan orain arte pilatutako esperientzia.

c.- Beste helburu batzuk:

- Dirulaguntza-jardueraren erregulazioa oinarrizko araudira (38/2003 Lege, azaroaren 17ko, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) egokitzea.
- Gardentasuna ziurtatzea dirulaguntzak eta lagunza publikoak emateko prozeduran.
- Eraginkortasun- eta efikazia-mailak handitzea dirulaguntzen arloko gasto publikoaren kudeaketan.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herri-administrazioak.
- Herritarra, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko bigarren lauhilekoan.

19.- 2018-2021 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planaren Legea.

a.- Izena: 2018-2021 ALDIRAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATISTIKA PLANAREN LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

- Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzea 2018-2021 laurtekoan.
- Plana legez onartzen da, eta Euskal Estatistika Erakundea/EUSTATEk, Jaurlaritzako sailek eta ekintza-mailako estatistika-organoek (foru aldundiek nahiz udalek) indarraldian egin beharko dituzten estatistika-eragiketak eta estatistika-jarduerak hartzen ditu barruan.

c.- Beste helburu batzuk:

- Kalitateko informazio estatistikoak emateko sistema bideratzea, arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen politika publikoen plangintzan, eta haiek ebaluatu ahal izateko.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herri-administrazioak.
- Gizarte-eragileak.



Nahi zapuz gezu J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabiltza, dokumentu hau egiazkoan den
ala ez jakin litake ergitza elektroniko honean: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electronica <http://eusko.eus/localizador>





- Informazio estatistikoak eskatzen duten politika publikoak ematean tartean diren kolektibo sozialak.
- Herritarra, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko lehenengo lauhilekoan.



7.- HEZKUNTZA SAILA

20.- Lanbide Heziketaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Kalifikazioen, Lanbide Heziketaren eta Orientazioaren Sistema Integratua antolatzea, enpresen eta pertsonen behar guziak modu orokorrean eta malguan batera ditzan, lanbide-heziketako modalitate guziak barne hartuz (bai hezkuntza-sistemakoa, bai enplegarako lanbide-heziketa), ikasteko eta lanbide-gaitasuna lortzeko era guziak onartuz eta bultzatzuz, eta bere neurri eta ekintza guziak adin aktiboan dauden pertsona guztiei zuzenduz.

c. Beste helburu batzuk:

Kalifikazioen, Lanbide Heziketaren eta Orientazioaren Sistema Integratua honako helburu hauek lortzeko eratu eta orientatu egingo da:

- EAEko ekonomiaren lehiakortasunaren eta pertsonen enplegarritasunaren hobekuntza sustatzea, produkzio-sektoreek lanbide-kualifikazioari dagokionez dauzkaten beharrak betez.
- EAEko administrazioek kualifikazioetan, prestakuntzan eta lanbide-orientazioan daukaten politikaren zuzendaritza estrategikoagoa, koordinatuagoa eta eraginkorragoa izan dadin laguntzea, politika hori ekonomiaren lehiakortasunari eta pertsonen nahiz enpresen beharrei estu lotuz.
- Empresa-erakundeen eta sindikatuen artean beharrezko adostasuna eta lankidetza lortzea kualifikazioen garapenean, prestakuntzan eta gazteen nahiz helduen lanbide-orientazioan.
- Lanbide Heziketako zentroei estaldura ematea, bestelako egitura- eta antolaketa-mota izan ahal izateko, etorkizunerako behar berrietara egokitua.
- Beharrezko ezagutzen eta gaitasunen garapenean laguntzea, hala nola biztanle aktibo guztien lanbide-kualifikazioen garapenean eta iraupenean.

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabilita, dokumentu hauegialdia den ala ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://eusko.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://eusko.eus/localizador>



- Aukera eta hautu egokiak ziurtatzea, pertsonek eta enpresek izan beharreko kualifikazioak, prestakuntza eta lanbide-orientazioa lortzeko.
- Pertsonen eta enpresen prestakuntza- eta kualifikazio-ahaleginen eraginkortasunean eta baliatze hoberenean laguntea, informazio eta lanbide-orientazio egokiaren bidez.
- Kualifikazioak, prestakuntza eta lanbide-orientazioa kalitate-maila handikoak izan daitezen lortzea, hala nola homologagarriak Europako testuinguruan, eta funtsezko bide moduan hautemanak, pertsonen eta produkzio-erakundeen aurrerapenerako.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herriarrak.
- EAEko Administrazioa (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Hezkuntza Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta Lan eta Justizia Saila).

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko lehenengo lauhilekoan.

21.- Euskal Hezkuntza Legea.

a.- Izena: EUSKAL HEZKUNTZA LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Hezkuntza Legearen helburua Euskal Hezkuntza Sistema arautzea da, EAEn kalitate, ekitate eta eraginkortasun printzipioetan oinarritutako hezkuntza sistema bateratua eraikitzen lagunduko duen markoa ezarriz, gizarte-kohesioa eta herritar aktiboak sustatuko dituena, eta ikastetxe publiko zein itunpekoen identitatea eta izaera propioa errespetatuko dituena.

Gainera, Eukal hezkuntza sistemaren kalitatean aurrera egiten eta sakontzen lagunduko duen legea izan behar du, egungo edo etorkizuneko gizartearen eta testuinguruaren behar pertsonal, sozial, akademiko eta laboralekin bat eginez, eta aldi beran Europako hezkuntza espazioan txertatuta.

Gernikako Estatutuan aitortuta ditugun hezkuntza-eskudunten garapen propioan mailarik gorena iristea ahalbidetuko duen legea, Euskal Hezkuntza Sistema indartzea eta egonkortzea erraztuz.

Horrela bada, Estatutuaren 16. artikuluak dioenez, “*Konstituzioaren lehen Xedapen Gehigarrian erabakitzeko, irakaskuntza Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietai, Konstituzioaren 27. artikuluaren eta berori zehatztuko duten Lege Organikoei, haren 149-1-30. artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke*”.





Aipaturiko berezitasun hori, adostasun politiko eta sozial zabalez onartu zen otsailaren 19ko 1/1993 Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen azalpenean ere jasotzen da. Lege honen Zioen Adierazpenean nabarmenzen du Euskadik hezkuntza arloan dituen eskumenen jatorri berezi hori. Horri gehi dakoie Autonomia Erkidego honek hezkuntza sistemak aintzat hartu beharreko ezaugarri kultural propioak dituela, bai eta bi hizkuntza ofizial ere, zeintzuen garapenean lagungarri izango baiten.

Era berean, gure hezkuntza sistemaren berezitasunez arduratuko den legea ezartzea ere bada helburua, sistema honen beharrei era egonkor eta iraunkorrean erantzuna emateko beharrezko diren tresnekin, sistemaren beraren onerako eragingo duten elementu berritzaileekin: hala nola, autonomia, eleanitzasuna, formazioa, teknologia berriak, sareak, materialak, hezkuntza-antolakuntza... eta bizaldi osoko ikaskuntzarako oinarriak ezarriko dituena, Ezagutzaren Gizartearen garapenean ekarpen aktiboa eginez horrela.

c.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Hezkuntza Eragileak (Patronalak, Familiak, Guraso Elkarteak),
- Hezkuntza Sindikatuak,
- Ikasleak,
- Eragile sozial eta politikoak.

d.- Lege-projektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko hirugarren lauhilekoan.



Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilgailua erabiliha, dokumentu hauegiazkoak den
ala ez jakin litake egaitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

8. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

22.- Euskal Kultura ondareari buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL KULTURA ONDAREARI BURUZKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal kultura-ondasunari heltzea modu integral eta osatuago batean, jarduteko eremu hauek bereiziz: ondare higiezinak, higigarriak eta immaterialak. Guztira, hamahiru kategoria desberdintzen ditu: sei, kulturako ondare higiezinen kasuan (monumentu-multzoa, eremu arkeologiko edo paleontologikoa, leku historikoa, kultura paisaia eta lorategi historikoa, eta kultur ibilbidea); bi, kulturako ondare higigarriei dagokienez (banakako ondare higigarria eta ondare higigarrien multzoa); eta bost, kulturako ondare immaterialen kasuan (kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpideak, ikuskizunaren arteak, gizarte-ohiturak, errituak, jai-ekintzak, artisautzari lotutako jakintzak eta teknikak; elikatzeko moduak eta sukaldaritza sistemak).



c. Beste helburu batzuk:


- Babes-mailen eredu zabalagoa agintzea, zeinak hobeto egokitzen baimenduko duen babestu beharreko ondasunaren kultura-balioen eta horren balorazio egokiaren arteko oreka, etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.
- Irizpideak argiago garatzea, zeinek kultura-ondasunen kontserbazioarekin, errekuperazioarekin eta balioa azpimarratzearekin lotutako jarduerak zuzenduko dituzten.
- Sustapen-neurriak arautzea, zeinek kultura-ondasunen jabetzako pertsona fisiko edo juridikoei lagunduko dieten lege hau betetzetik etorritako betebeharrei erantzutzeko.
- Gobernantzaren organo eraginkorragoak sortzea, erakundeen arteko koordinazioa eta agente sozialen parte hartza lantzean.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Kultura-ondasunen titularrak. Pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak eta pribatuak izan daitezke.
- Foru-aldundiak: Kultura ondasunen kontserbazioaren eskumenak dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak araututako babes-araudia betearazteko ardura dute.
- Udalak: Hirigintza-antolamenduaren bitartez babesten dute kultura-ondarea, batez ere, eraikitako kultura-ondarea.
- Lurralde-antolamenduan eta ingurumenean eskumenak dituzten administrazio publikoak: Kultura-ondarearen babesean eragina dituzten arauak eta jarduteko tresnak garatzeko eskumenak dituzte.
- Profesionalak eta ikertzaileak: Azkenak gero eta sartuago daude unibertsitate-eremuan. Hori dela eta, ezagutza aditua duen kolektiboa da, hain zuzen, kultura-ondarearen kudeaketarekin lotutako ezagutzaren diciplina anitzetan.
- Kultura elkartea eta herriarrak: Kolektibo hau osatzen dute kultura-ondarea defendatzen dutenek interes publikoaren ondasun gisa.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko lehenengo lauhilekoan.



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den
ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euskiad.eus/lokalizazioa>
La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el localizador
J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electrónica <http://euskiad.eus/localizador>



23.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko 14/98 Legea eguneratzeko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KIROLARI BURUZKO 14/98 LEGEA EGUNERATZEKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloko eskumen esklusiboa du. Eskumen hori gauzatzeko, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak.

2018 urtean, 20 urte bete dira legea onartu zenetik, eta, ordutik, asko aldatu da gure gizartearen kirola egiteko ikuskera.

Gogoeta sakona egiteko beharra ikusi da sektoreko agenteekin; alde batetik, legearen egungo alderdiei buruz, bai funtzionatu dituzten puntuengainean bai garapena izan ez duten artikuluen gainean. Beste alde batetik, gogoeta egitea gizartearen hurrengo 20 urteetan egin nahi da jarduera fisikoaz eta kirolaz, gure asmoa baita garaiekin bat datorren, eta egungo itxaropenak eta beharrak jasoko duen legea egitea.

c.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Kirol-federazioak.
- Kirol-klubak eta -elkartea.
- Kirolariak.
- Zerbitzuen eta kirol-ekipamenduen enpresa kudeatzaileak.
- Turismo aktiboko enpresak.
- Kirolari buruzko gaiak irakasten dituzten unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroak.
- Kirol-enpresak.
- Foru aldundiak.
- Udalak eta Eudel.

d.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko hirugarren lauhilekoan.

24.- DOPINAREN AURKAKO LEGEA.

a.- Izena: DOPINAREN AURKAKO LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Kiroleko Dopinaren Aurkako Legea aldatzeko lege-proiektuaren xedea da Dopinaren aurkako euskal legea egokitzea AMaren Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira (Dopinaren aurkako Munduko Agentzia). AMA (WADA ingelesez) da dopinaren aurkako munduko borrokaren erreferentzia; hortaz, Eusko Jaurlaritzak funtsezkotzat jotzen du euskal legea haien irizpidetara egokituta egotea.

c. Beste helburu batzuk:

Kiroleko Dopinaren Aurkako Legeak aldaketak jasotzen ditu hauekin lotuta: arau-hauste berriak, zigorrak, laginen kontserbazioa eta lehiaketetara itzuli aurretik bete beharreko baldintzak.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:



Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabiliha, dokumentu hauegiazkoaren
ala ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://euskoadi.eus/lokatzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electrónica <http://euskoadi.eus/localizador>



- Kirol-federazioak.
- Kirol-ekitaldien antolatzaileak.
- Kirolariak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko bigarren lauhilekoan.



25.- Euskadiko Dokumentu kudeaketa integralaren Legea.

a.- Izena: EUSKADIKO DOKUMENTU KUDEAKETA INTEGRALAREN LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskadiko dokumentu kudeaketa integralaren legearen helburu nagusia da honako hauek lortzeko oinarriak ezartzea: batetik, dokumentu publikoak digitalki eta analogikoki kudeatzeko sistema koherente eta koordinatu bat antolatzea, modu horretan bermatuz hala balio iraunkorra duten dokumentuen kontserbazioa, nola haietarako irispidea, betiere irispide hori erregulatzen duen araudia osatuago baten esparru orokorraren arabera; bestetik, antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-sistema, gure erkidegoarentzat interesa duten dokumentazio publiko eta pribatua zaindu behar duena.

c. Beste helburu batzuk:

Honako hauek dira Euskadiko dokumentu kudeaketa integralaren legearen helburu espezifiko osagarriak:

- Definitza zein diren Euskal Autonomia Erkidegoaren Dokumentu Ondarea, balio iraunkorrekoa, osatzeko betekizunak
- Oinarri berrien arabera antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Sistema Nazionala, lankidetza- eta kooperazio-esparru gisa.
- Dokumentuak kudeatzeko funtzionamendu eraginkorrago eta efizienteago bat sendotzea eta sustatzea.
- Dokumentu-ondarea kontserbatu eta zabaltzeko bitartekoak jartzea.
- Sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Historikoaren funtziak, eta horiek definitza.
- Dokumentazio publikoan eragina duten gardentasun betebeharra gauzatzen laguntzea.
- Bermatzea herritarrek balia dezaketela dokumentu administratibo eta historikoetarako irispide-eskubidea.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hauegiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>



- Dokumentu eta artxiboen titular publikoak, dokumentu eta artxibo horiek kudeatzen dituztenak: Estatuko administrazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa, Foru administrazioa eta Udal administrazioa.
- Dokumentu eta artxiboen titular pribatuak, dokumentu eta artxibo horiek zaintzen dituztenak: pertsona fisikoak eta juridikoak.
- Ezagutza alor desberdinako ikerlariak.
- Herritarrok, oro har: dokumentaziorako irispidea nahi dutenak, dela ezagutza iturri bezala erabiltzeko, dela zenbait eskubide edo betebehar aitortzeko frogagiri bezala erabiltzeko.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2019ko hirugarren lauhilekoan.

26.- Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KIROL ARLOKO LANBIDEETAN SARTZEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloko eskumen esklusiboa du. Eskumen hori gauzatzeko, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horrek 62. artikulan ezartzen zuen ezen agintari publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, titulu ofizialak eskatuko dituztela kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak eskaintzeko, hots, irakaskuntza- zuzendaritza-, kudeaketa-, entrenamendu- eta animazio-zerbitzuak eta bestelakoak eskaintzeko.

Kirol arloko lanbideek gero eta intzidentzia handiagoa dutenez gizartean, beharrezkotzat jotzen da gaur egun ez dagoen araudia sortzea. Aipatu jarduera profesionalek kirolarien osasunean eta segurtasunean eragiten dute zuzenean, bereziki, prestakuntza egokirik gabeko pertsonek bete izan baitituzte aholkularitza eta tutoretza lanak. Hauek arautu nahi ditu lege-proiektuak: kirol-arloko berezko lanbide batzuetan jarduteko oinarrizko alderdiak, lanbide horietan jarduteko zer kualifikazio izan behar den zehaztea, eta lanbide bakoitzari dagokion eremu funtzional orokorra esleitzea.

Kirol-arloko lanbideetan sartzeko edo jarduteko, legearen ezaugarrietako bat izango da beharrezkoa izango dela goi-mailako hezkuntzako titulua ezezik, dagozkion lanbide-kualifikazioak ere egiaztatzea. Kualifikazio horiek, berriz, hainbat mailatako titulu akademikoen bidez egiaztatu ahal izango dira, baita beste titulu batzuen bidez ere, esaterako, profesionaltasun-ziurtagiriak.

Lege honek arautuko dituen lanbideek hezkuntzaren, aisiaren, lehiaren eta zuzendaritzaren eremua hartzen dute. Hortaz, lanbide hauez ari gara:

- Irakasleak



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://eusko.eus/lokalkitzalea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electrónica <http://eusko.eus/localizador>





- Monitoreak
- Entrenatzaileak
- Kiroleko zuzendariak

c. Beste helburu batzuk:

- Hezkuntzaren eremuan, irakaslearen lanbidea arautu zen Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera. Gorputz Hezkuntzako irakasleak adingabeekin dituen egitekoen garrantzia bermatu nahi du legeak, eta, horregatik, lehen laguntzak emateko gutxieneko prestakuntza eskatzen du. Lege honek arautzen dituen lanbide guztietan errepikatuko da aipatu eskakizuna.
- Kirol monitoreek protagonismo nabarmena hartu dute azken urteetan, haien jardute-eremua lehiaketako ez den kirola_bada ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, garrantzi handia hartu du osasunerako, aisia eta jolaserako edo, gizarteratze xedeetarako egiten den kirolak. Lanbide jarduerarako eremu erakargarria bilakatu da. Era berean, gero eta interes handiagoa dago abentura-kirolak edo arrisku-kirolak egiteko edo natura-ingurunean kirola egiteko. Horrek guztiak profesionalen eskaintza eta eskaera handia sortu du. Praktika hortiketako bakoitzak berariazko baldintzei eustea ekarriko du (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduatura, Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria, profesionaltasun-zuriagiria...).
- Lege honek dagokion kirol modalitateko edo diciplinako entrenatzaile lanbidea onartzen du. Lanbide horrek ahalmena ematen du, funtsean, lehiatu nahi duten kirolari eta taldeen entrenamendua eta zuzendaritzaz planifikatzeko eta zuzentzeko. Prestakuntza-maila (maila baxua, ertaina edo alta), eta aipatu kirolaren ezaugarriek beharrezko titulazioak edo aintzatespenak zehaztuko dituzte.
- Legeak, halaber, kirol-zuzendariaren lanbidea arautzen du, zeinak baimentzen duen zuzendaritzaz, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol eta gainbegiratze teknikoarekin lotutako jarduera profesionalen multzoa egitea. Kasu horretan, jardute-eremuaren araberakoa izango da behar den titulazioa.
- Aipatzeko da lege-proiektu honek lehen aldiz arautzen duela zerbitzu-prestazioa informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez (plataforma birtualak), zerbitzu horiek ematen dituzten pertsonen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago eta, gainera, lanbide-zerbitzuak herritarrek erabil baditzakete. Zerbitzu horien erabiltzaileek haien osasuna eta segurtasuna babestea merezi dute dagokion kualifikazioa eskatuz.
- Aipatutako eremuez gain, lege-proiektuak boluntarioei eskatzen zaizkien kualifikazioak ere jasotzen ditu; izan ere, ordaindu gabeko kirol-jarduera teknikoetan parte hartzen dute. profesionaleei eskatzen zaien kualifikazio bera eskatzen zaie; baina, araubide malguago bat aurreikusten du dagoen errealitate sozialari erantzuteko.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Kirol-federazioak.
- Kirol-klubak eta -elkarreak.
- Kirolariak.
- Zerbitzuen eta kirol-ekipamenduen enpresa kudeatzaileak.
- Turismo aktiboko enpresak.
- Kirolari buruzko gaiak irakasten dituzten unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroak



Nahi izanez gero J0D0Z-T0Vv8-WQPT bilagailua erabili, dokumentu hauegiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honekanti: <http://euskuad.eus/lokalkiztzailea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0Vv8-WQPT en la sede electronica <http://euskuad.eus/localizador>



e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko hirugarren lauhilekoan.

9. SEGURTASUN SAILA

27.- Euskal autonomia erkidegoko Poliziari buruzko Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIARI BURUZKO LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruko 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, aldatzea, polizia-eredua sendotzeko, zerbitzuaren beharrak ondo bete daitezen prozedura azkarra ezartzeko, funtzionarioen eskubideak bermatuta, eta poliziaren zerbitzua eraginkorra eta efikaza izan dadin behar diren mekanismoak jasotzeko

c. Beste helburu batzuk:

- Poliziaren Etikaren Kode Europarra jasoz eta polizia-zerbitzua hobetzeko eta ebalutzeko eta kontuak emateko mekanismoak ezarriz, polizia-eredua sendotzea. Batzorde hibrido bat sortzea, autonomia funtzionala izango duena, polizia-jardueretako praktika onak aztertu ahal izateko eta kexak tratatzeko mekanismoak indartu ahal izateko.
- Hautatzeko eta sartzeko mekanismoak sendotzea eta berdintasun planak eta emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak jasotzea, Europako Erkidegoetako jurisprudentziak lege-neurriei, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari buruz ezartzen dituen eskakizunen kontra jo gabe.
- Barne-promozioa sendotzea, promozio horretarako eragozpenak desagerraraziz, lanbide-karrera arautza eta lanpostuak betetzeko mekanismoak sendotzea.
- Polizia-jardunari buruzko egokitzapenak jasotzea, adinaren ondorioz egiten direnak, edo funtziopolizialaren eginkizunak betetzeko berezko gaitasunak gerora galdu izanaren ondorioz, eta betiere funtzionarioen osasuna babesteko eskubidearekin bat etorrita Halaber, langileen babes soziala, oinarrizkoan zein osagarria, ezartzea eta bereziki kontuan hartuta administrazioek langileen baldintza psikofisikoak, laneko osasuna eta laneko arriskuen prebentzia zaintzeko obligazioa dutela
- Legean jasotzea kondekorazioak eta ohorezko sariak emateko erregimena, eta diziplina-erregimena enplegatu publikoen erregimen orokorrera gerturatzea.

Nahi izanez gero J0D0Z-T0V/V8-WQPT bilagaiua erahilua, dokumentu hauegiazko den
ala ez jakin litake egitura elektroniko honean: <http://euskaid.eus/lokatzarria>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T0V/V8-WQPT en la sede electrónica <http://euskaid.eus/localizador>



- Udaltaingoek udal agintariak babesteko eginkizunak bete behar dituztenean, udalerritik kanpo jardun behar duten kasuak aurreikustea, udaltaingoko lanbide-egitura Ertzaintzakoa bezalatsu jasotzea. Bereziki, udaltaingoko buruei dagozkien kategoriak, biztanleria edota kidegoa osatzen duten pertsonen kopurua kontuan hartuta. Eta aguazilaren figura arautzea udaltaingoa ez duten udalerrietarako; eta mugikortasun-agentearena, hirigunean zirkulazioa arautzeko.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako funtzionarioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak dituzten administrazio publikoak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko bigarren lauhilekoan.

10. LANA ETA JUZTIZIA SAILA

28.-Euskadiko kooperatiben Legea.

a.- Izena: EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Testu bakar batean bateratzea eta integratzea eginiko aldaketak, enpresa egiteko bestelako aukera den soziitate mota horren eraginkortasunerako eta baliagarritasunerako gai nuklear erabakigarriak argitzeko, hala nola bazkideek zor sozialak direla-eta dituzten erantzukizunak.

c. Beste helburu batzuk:

- Kooperatiba mota jakin batzuen (etxebizitzak, garraioa) lege-konfigurazioa berrikustea.
- Soziitateen zuenbideko gidalerro nagusiak gehitzea (gobernu kooperatiboa araupeletza).
- Hobekuntza juridiko-teknikoak, arauari koherentzia emateko, araua interpretatzeko eta arauaren aplikazio praktikoa egiteko lagunarrirako direnak.

d.- Eragindako gizarte-sektoreak:

- Kooperatibak

e.- Lege-proiektua onartzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den:

- 2018ko hirugarren lauhilekoan.

Nahi izanez gero, JUD0Z-TOVV8-WQPT bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin litake egitura elektroniko honetan: <http://eusko.eus/lokalizazioa>. La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador JUD0Z-TOVV8-WQPT en la sede electrónica <http://eusko.eus/localizador>

